

duen *Birds without Wings*-ek. Formari begira hautu bitxia bada ere, edukiaren aldetik, azken urteetan irailaren 11n AEBetako Dorre Bikiegi egindako erasoaren ostean zabalduko diskurtsoen inguruan Mendebaldeko zenbait liberalen artean musulmanak *babesteko* nagusitu den logikaren isla da. *Terrorearen kontrako gerra*, zibilizazioen arteko gatazka eta gurutzadak abiarazteko Urbano II. aita santuak erabilita-

Argitaratze-unetik bertatik laudorio ugari jaso ditu epika eta errealismo magikotik edaten duen nobelak

'Birds without Wings' esatera datorren bezala, Otomandar Inperioa ona zen; Turkia, estatu modernoa, txarra

ko hizkuntza gogora dakartzaten esamoldeen inguruan, liberal horiek esaten dute musulmanak ez direla gaiztoak, kontrakoa baizik, eta, froga modura, urrezko garairen bat aipatu ohi dute, non kristau eta musulmanak modu bakeetsuan bizi ziren elkarrekin. Jakina, narrazio horietan faktore ekonomiko, politiko eta sozialen azterketarik ez da izaten, ezta kolonialismoaren eraginaren edo eraginik ezarena ere. Arkadian ez dute Marxen beharrik. Nazionalismoak du erru guztia, monismoan oinarrituta egon ohi delako: hizkuntza bat, etnia bat, erlijio bat. *Birds without Wings* nobelak dioenez, Otomandar Inperioa ona zen; Turkia, estatu modernoa, txarra. Egia da hastapenetik ibilbide gorabeheratsua izan duela herrialdeak, oraindik ukatu egiten diren masakreak direla tarteko, baina Otomandar Inperioa ez zen paradisu, inperiorik paradisu izan ez den bezala. Hala-ko pentsamendua, baina, ez dago kritikatzeko duen diskurtsoetik oso urrun. Bestea erromantizatzea, Rousseuren *basati ona*-ren asmakizunak egin bezala, ala deabrutzea, biak ala biak aurreiritzietan oinarrituta daude. Orhan Pamukek esan bezala, Mendebaldean «bidaia-literatura popularraren exotismo» eta «pobrezia eta ergelkeria apaintzeko joera duen nobela magiko-errealistaren» artean ibili ohi gara Ekialdeari «asmo onez» heldu nahi diogoniar, eta txarrean... tira, *Jainkotiar Komedia*-ren garaitik aurrerapen handirik ez da egon musulmanak deabrutzeko prozesuan (ez, *Charlie Hebdo* ez zen horren apurtzailea).

Mamuak harrapatu nahian

Alex Gurrutxaga

2005eko *Bekatuak*-en bezala, ideia baten inguruan bueltaka dabil-tza Ana Urkizaren azken liburuko ipuinak: Mamuak dira oraingoan ipuin guztietan nola edo hala agertzen direnak. Sei ipuin luze eta zazpi labur txandakatu osatutako liburua da: 13 kontakizun, sineskerien eta mamuen kontra.

Mamuak, baina, aski presente daude, egileari jarraikiz, gure bizitzetan. Hain zuzen, izen horixe daukan lehen ipuina liburuaren aurkezpen orokor gisa irakurtzekoa da, eta norberarenak diren mamuen garrantzia eta presentzia aldarrikatzen du.

Protagonista emakumezkoa dira Urkizaren ipuinetako gehien-gehienak –bide batez, begiratu azaleko erreferentziei: *Bekatuak* liburuaren azalean sarrak ageri ziren; hemen, berriz, *Adamen sorrera*-ko eskuen be-

rrinterpretazio bat-, helduak dira, eta bikote harremanetan edo familia bizitzan murgilduta daude. Askok sentitzen du, ordea, besteen bizitzetako pertsonaia dela, bere bizitzako protagonista izan beharrean. Pertsonala bezain soziala den borroka horren testuinguruan, ohiko jendeneren miseriak, penak eta ariman sartutako arantzak azaleratzen dituzte ipuinekin.



'Mamuak'

Idazle: Ana Urkiza. Argitaletxea: Elkar.

Ez ihes egin

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Nire alabak, irakurri ostean, honela esan dit: «Ederra da, baina tristea». Eta nik ezin dut hitz hauek azalpen zabalagoekin lardaskatu baino gehiago egin. Lau hitz horietan kabitzin baita liburu honetaz esatekoa dudana guztia.

Irudidun narrazio bat da, 96 orrialdekoa, baina laburra, hamar bat minututan irakurtzekoa. Esaten da, batzuetan, irudiek errepikatu egiten dutela testua, edota azpimarratu. Obra honetan alderantziz da, testuak irudiek diotena errepikatzen du, edo, akaso ñabartu. Arkatzarekin eta sepia koloreko urmargoekin eraikita dauden ilustrazioek giroa ez ezik lekua ere iradokitzen dute, Ekialde Hurbila, inondik ere.

Oso ederra da lana, gaitasun narratibo handikoa, baina tristea. Eskema moduan urrututako arkatx arastoek gerra iritsi deneko Akim-en herrialdearen berri ematen digute. Akim-en ibili harrituta, iheskorra, beldurtua.

Besterik ezin dut esan, edo bai: mesedez har ezazue Akim-en arrastoa, zuen inguruko haurrei irakurri, ez galdu aukera. Liburu ederra da, tristea, baina ezin diogu bizkarra eman.



'Akim ihesi'

Idazlea: Claude K. Dubois. Ilustratzailea: Claude K. Dubois. Itzultzailea: Azitri. Argitaletxea: Ttartalo.

Pertsonaia-ipuina dira Urkizarenak eta, ekintza baino, pertsonaien egoera da zentrala: haien barneko mundua, gatazka pertsonalak eta beldurrak. Pentsatzekoa da 13 ipuinetan zehar pertsonaia aski ezberdin eta sakonak aurkitu behar ditugula, baina ez da hala. Liburuko protagonista nagusiak elkarrengandik gertuegi daude: kolore gutxi xamar dago karakterizazioan eta eskemak nahiko antzekoak dira. Paradigma orokor bat nagusitzen da: protagonistak maitasun *ideal* bat utzi zuen aspaldi atzean, geroza bizitza beste bikote batekin egin du, eta, pixkana-pixkana, zailtasunak agertu ahala, bizimodu honetaz nazkatuta, izan zitekeenaz eta aspaldiko harreman idealizatuaz pentsatzen du. Horik iraganeko mamuen presentzia eta oraingo bizimoduaren iluntasunak.

Formalki, hainbat teknika baliatzen ditu egileak, eta anizkuna da, adibidez, pertsona narraitiboen erabilera eta fokalizazioa. Hala ere, aipatutako paradigma orokorrari lotuta, kontamolde bat agertzen da maiz, errepikakor gertatzeraino: narrazio gehienak orainaldian abiatzen dira, baina protagonista gogortzen hasi orduko orainaldia eta

analepsien bidez emandako oroitzapenak tartekatzen dira.

Gauzak horrela, ipuin luze eta garatuena dira aipagarriak: *Bere erara*, *Errezelak* edo *Eskaileretan*. Horietan pertsonaia borobilak dira, euren baitako ertzak garatuta ageri zaizkigu, eta narrazioek tentsioari eusten diote. Pintzelkada sinbolikoak ere badaude han-hemenka –errezelak, tomateak, kotoia, eta abar–, eta pertsonaien barne-mundua erretartuta sendoa da. Ipuin laburren artean, berriz, *Izua* ipuina aipatu behar da, ETAKide erailaren irudiari buruz egindako gogoeta mikatz bezain sotila.

Oro har, ipuin liburuaren egiturazko koherentzia ikusita, idazleak mamuei buruzko gogoretan sakontzeko egindako saialdia azaleratzen da, isildutako beldurrak eta gordetako minak literaturan jorratu eta irakurleari hausnartzeko bideak eskaintzeko lana: «Nork bere miseriak gordetzen eta metatzen» dituela gogorarazten digute narrazioek. Horretan asmatu du Ana Urkizak. Zoritxarrez, neurri batean pertsonaia antzekoen eta eskema beraren errepikapenagatik, emaitza literario eta estetikoak ez dio apustuari eusten.

Nerabe ausartak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Nerabe literaturan ohiko bihurtu den ildoan, eleberrin honetan trantsizioan dauden pertsonaia ezagutzeko aukera dugu, aro honekin beti gertatzen den bezala, ezkutuan zelan ari garen sentipen deserosoa gainetik ezin kendurik.

Honetarako, protagonistak bere bizipenen eleberria idatziz eskainiko digu, ezizen baten atzean mozturroturik. Jakina da Gomez Cerda idazleak sortutako amarru bat dena, baina bere presentzia gure paretik kendu, eta pertsonaiari hain eraginkorki ematen dio hitza, ezen benetako idazleaz ahaztuta ariko baikara.

Protagonistak *Inorrez* ezizena hartzen du, bere benetako nortasuna ezkutatzeko, eta testuingu-

ru horretatik abiatuz, bi erronka ezartzen dizkio bere buruari: eleberrin bat idaztea, eta bere bizitzan hain garrantzitsua izan zen parteartea guri kontatzea.

Bi hari hauek, paraleloan elkar elikatuz, irakurlea aberasteko tresna bihurtzen dira. Batetik, idazlearen ofizioko nahi eta ezin; bestetik, nerabezaroko gai ezagunak: desoreka, janariarekiko obsesioa, maitasuna, fidelitasuna, zintzotasuna, eskola...



'Neska baten hitza'

Idazlea: Alfredo Gomez Cerda. Itzultzailea: Aitor Arana. Argitaletxea: Ibaizabal.